

Bankuak duela urtebete jaulkitako **bere lehen bonuaren eragina** argitaratu du

Kutxabanken bonu berdeek 4.700 tona CO2 isurtzea saihestu dute eta orduko 113.000 megawatt energia eoliko, ia 35.000 etxeren batez besteko kontsumoaren baliokidea, sortzea finantzatu dute

- **Funtsen % 84 eraikuntza eraginkorrak finantzatzeko erabili da, % 15 energia berriztagarrietarako eta gainerakoa garraio garbirako**
- **2021eko urrian, Kutxabankek 500 milioi euro jarri zituen arrakastaz bonu berdeen lehen jaulkipenean, eta ia osorik nazioarteko inbertitzaileek harpidetu zuten**

2022ko urtarrilaren 17a. Kutxabank Taldeak energia-aurrezpen nabarmena bultzatu du, 2021eko urrian egindako lehen bonu berdeen jaulkipenaren bidez. Zehazki, guztira CO2 isurien **4.708,1 tona** aurreztea ahalbidetu du, baita **orduko 21.974 megawatt**-eko elektrizitate-kontsumoa bizitegi-sektorean ere. Gainera, urtean **orduko 113.186,06 megawatt**eko energia berriztagarria sortzea ahalbidetu du, aire-sorgailu berrien finantzaketari esker.

Bonu berdeen **lehen jaulkipenaren inpaktu-azterketaren** emaitzak dira horiek. Bertan, lortutako funtsen erabilera eta finantzaturako proiektuen bidez lortutako ingurumen-inpaktua erakusten dira.

Jaulkipenarekin lortutako 500 milioien **% 84 eraikuntza eraginkorreko** proiektuetara bideratu da, **% 15 energia berriztagarrietara** –% 100 eolikoa– eta **% 1 garraio garbira**.

Bizitegi-sektorean, eraikin berdeekin lotutako proiektuetara bideratutako finantzaketari esker, urtebetean 6.716 etxek egingo luketen batez besteko kontsumoaren baliokidea den energia aurreztu ahal izan da.

Bestalde, Kutxabankek energia berriztagarriko proiektuei emandako finantzaketari esker instalatutako ahalmen edo gaitasun eolikoa handitzeak urtean 34.592 etxetako batez besteko kontsumoaren baliokidea den energia sortzea ahalbidetu du.



CO2 isuriei dagokienez, Kutxabanken Bonu Berdeari esker lortutako aurrezpena 1.319 gasolina-autoren urteko isurketen baliokidea izango litzateke, edo 519.539 smartphonek urtean kontsumitutako elektrizitatea ekoiztearen ondoriozko isurketen baliokidea.

2021eko urrian egindako jaulkipenaren ikuspegi estrategikoa hau da: **ingurumen-inpaktu positiboa** duten aktibo eta proiektuetara bideratzea likidezia, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa bultzatuz eta finantza jasangarrien garapenean modu aktiboan lagunduz.

Nazioarteko inbertitzaile instituzionalek harpidetu zituzten ia oso-osorik bonuak, eta eskariak erruz gainditu zuen eragiketaren zenbatekoa.

Jaulkipen-prozesua 2021eko abuztuan hasi zen Bonu Berdeen Markoa ezarri zenean, gero hori Bonu Berdeen Printzipioen azken edizioarekin eguneratu zen, eta proiektu finantzarrien hiru kategoria ezarri ziren: energia berriztagarria, garraio garbia eta eraikin berdeak. Markoak **Garapen Jasangarrirako Helburuetako** hiru —Energia Eskuragarria eta Garbia (7. GJH), Hiri eta Komunitate Jasangarriak (11. GJH) eta Klimaren aldeko Ekintza (13. GJH)— eta Europar Batasunaren sei ingurumen-helburuetako bat edo batzuk lortzea sustatzen du.

Metroeconomicak, aholkulari independente gisa, kalkulua egin du eta txostenerako erabilitako metodologia garatu du. **PWCk egiaztatzaile independente** gisa jardun du, Kutxabankek 2021ean argitaratutako Bonu Berdeen Markoarekiko analisiak duen funts edo oinarria ziurtatuz.

